

Gose-greba, brailera pasatako euskal liburutegia eskatzeko

DONOSTIA

Egunkari honetako Iritzi sailean atzo argitaratu zen artikulu batean, Manu Agirre ataundarrak itsu euskaldunek liburuak euskaraz irakurtzeko dituzten arazoak salatu zituen, brailera pasatako liburuak gutxi eta baldintza eskasekoak direlako, eta gose-greba mugagabe bat egiteko asmoa azaldu zuen. Atzo eguerdian hasi zuen protesta AEK-ko Abarrak euskaltegian, Durangon, eta bere helburua lortu arte eutsiko diola esan zion GARARI. «Helburua euskaraz eta braillez liburutegi bat egon dadin da, era jarraituan, edozein liburutegi bezala, eta nire asmoa da gose-grebari eustea horretarako konpromiso zehatz eta garbi bat lortu arte», esan zuen Agirrek.

Oso argi du nori egiten dion eskaera. «Konpromiso hori hartzea Jaurilaritzari dagokio, herri administrazioei dagokie, zeren, azken finean, hemen funtsean dagoen kontua eskubideena da», azaldu zuen. Bera itsua da eta braillez irakurtzen du, eta bere hizkuntz, kultur eta informazio eskubideak urratuta daudela hainbat lekutan salatu du. «Gaia oso luzea da, urte asko pasa dira han eta hemen kontua planteatuz, eta ate guztiak jo eta gero ikusi dudanean aurrera biderik ez dagoela, bada, eraba- ki hau hartu dut», esan zuen.

Lehenengo erantzukizuna administrazioari egokitzen dio, baina ez horri bakarrik. ONCE Estatu espainoleko itsuen elkarteak ere brailera pasatako euskarazko liburuak gabezia erantzukizuna duela salatu du Agirrek. «Bigarren mailako ardura dauka, baina ardura garrantzitsua». Botere publikoek «haren eskuetan uzten dituzte itsuentzako zerbitzuak, eta euskararen kasuan ONCEk ez du inondik inora ere beste hizkuntza batzuekin izan duen jarrera izan», ziurtatu zuen.

Gaztelaniaz testuak era normalizatu batean ekoizten badira ere, euskaraz ez omen dute horrelakorik egiten. «Oso banaka dira euskal liburuak, katalogatu gabe daude, baldintza txarretan gehienetan, zuzenketa handirik gabe. Zehatz mehatz ezingo nizuke esan zenbat liburu dauden, hogeit, hogeita bost edo hogeita hamabi, ez dakigu».

Azokaren babesa

Agirreraren esanetan, baliabideak ez dira arazoa. «Hezkuntza liburuak euskaraz braileratzen dira, eta horretarako baliabideak baldin badaude, ulertezina iruditzen zait nola ez den aukera hori zabaltzen eta erabiltzaile potentzial guztien eskura ipintzen».

Horiek hala, Durangoko Abarrak euskaltegian dago atzodanik, gose-greba mugagabea, eta Durangoko Azoka aprobetxatu nahi du arazoa zabaldu eta argitaletxeekin ere hitz egiteko. «Urte hauetan hainbat erakunde eta alderdirekin hitz egin dugu, Arartekoarekin hainbat kexa aurkeztuta badauzkat eta azken bolada honetan Behatokiko arduradunekin ere egon naiz. Ahal dudan neurrian babesa eta laguntza jasotzen ahaleginduko naiz».